



Nortasun agiria

Elias Querejeta Garate Hernanin jaio zen 1934ko urriaren 27an. Kimika eta Zuzenbidea ikasten ibili zen, baina titulu akademikorik ez du. Zinemarako pasioak bultzatuta bere produkzio-etxe propioa sortu zuen 1963an, eta ordutik 50 film baino gehiago ekoitzi ditu, tartean munduko festibal handienetan sarituak izan direnak, Berlinen, Cannesen, Donostian... Frankismo garaian eta trantsizioan zinema espainiarrari gai eta forma berriak eman zizkion. Zuzendari handiekin lan egin izan du, inoiz gidoilari bezala ere bai: Carlos Saura, Victor Erice, Julio Medem, eta oraintsu Fernando León de Aranoarekin. Madrilen bizi da.

«Multinazionalen presentzia handiegia dago zineman»

Irudimena iruditan pentsatzea dela dio hitzak, eta Elias profeta bat da horretan, pentsatzen, ordenatzen, eta adierazten. Baina hitzak erabiltzen ere badaki, gidoilari finaden aldetik. Eta elkarrizketetan erantzuten ere ez da hankamotz gelditzen.

Ametz Arza | **Ius**

Argazkiak: Dani Blanco

Donostiako lehenengotako festibala, Maria Cristinako halla. Zinema zuzendari handi bat mikro txiki baten aurrean. Zu han, baina galde-tzaile. Oroitzen zara?

Bai, Rene Clerc-i elkarrizketa bat egin genion. Zinemako denbora eta espazioa aztertuz Antxon Ezeiza eta biok lan bat egin bagenuen, elkarrizketaren erdian zera galdetu nion: “Zein da zure gogoeta narrazio zinematografiko osoan denbora eta espazioaren determinazioari buruz?”.

Zer erantzun zuen?

Begiak maltzurtuta begiratu zidan, eta esan zuen: “Gazte, ez zaitez pedantea izan!”. Kar, kar, kar. Baina sinpatikoa zen. Jean Renoir ere bai, tipo zoragarria, Venezian ezagutu nuen, nire bizitzan eman didaten lehen zinema saria berak eman zidan, Jean Renoirek.

Eta zein da zure gogoeta artista baten karreran haurtzaroko pasadizoak, bere denbora eta espazio, duen inpaktuari buruz?

Ni Hernanin jaio nintzen, eta oroitzapen zoragarriak ditut, baina garai ezberdina zen, garai gogorra, euskara ere debekatua zegoen. Egun batean eskolatik etxera itzuli nintzen, eta lorategiko atetik sartu nintzenez, etxeko neskameak, lorazaina eta nire ama lorategian ikusi nituen, Guardia Zibil talde bat ere han zen. Handik gutxira bere txofer partikularrak ekarrita aita agertu zen, atera zen autotik, begiratu zuen, eta Guardia Zibila bistan. Desagertu eta bere bulegora joan zen, telefonoz deitzen ikusi nuen leihotik, eta handik laster atera zen kanpora. Guardia Zibilen burua-

Elias Querejeta

ri “kanpora hemendik denak!” agindu zion. Gerora jakin nuen zergatik zeuden han. Etxearen izena euskaraz zen, Villagurutze, eta nonbait hura ezaba zedin nahi zuten.

Zuen etxean euskaraz egiten zen?

Amak oso ongi hitz egiten zuen, eta aitak ere bai, baina gazteleraz hitz egiten genuen beti, eta ez nuen ikasi. Pena ematen dit, baina halaxe da, badakizkit euskarazko hitzak jakina, eta badakizkit euskarazko kantu batzuk ere, eta kantatu nezake. Adibidez Iparragirren kanturen bat: “Giltzapean sartu naute, poliki-poliki, negar egingo luke, nire amak baleki...”.

Zinema nola deskubritu zenuen?

Egun batean gure lorategian jolasten ari ginen ni eta lagunak, eta nire aita azaldu zen, zerbait zeraman besapean gordea, hots egin zigun eta koadrila guztia azkeneko solairuraino igo ginen. Oihal bat zabaldu zuen pareta batean, besapean zeraman *katxarro* hura atera eta irudiak proiektatzen hasi zen. Orduan ikusi genituen lehen aldiz irudi batzuk, Charlot-enak ziren, hori izan zen ikusi nuen lehen zinema.

Hasieratik txunditu zintuen?

Bai, momentu hartatik aurrera txundituta gelditu nintzen. Eta etxetik hurbil, Tilosetako paseotik hurbil, izkina batean “goiko zinema” esaten zitzaiona zegoen, Zintzotasuna izena zuena, eta ahal genuen asteburu guztietan hara joaten ginen arratsaldeko hiruetako emanaldira. Han ikusi nuen Full Montsu, eta gero Full Montsua muntatu nuen etxeko lorategian.



Aita asko aipatzen duzu, frankismo garaian politiko ezaguna izan zen, Gipuzkoako ahaldun nagusia, eta Murtziako gobernadore zibila ere bai. Nola oroitzen duzu zuk?

Oso ongi. Oso harreman ona genuen, eta igandero, mahaian, nahi genuen guziaz eztabaida genezakeen.

Izango zen zer eztabaidatua, hura erregimen frankistan politikoa, eta zu pentsaeraz ezkerrekoa. Nondik nora?

Tira, amaren aldetik jo ezkerreko bazen familian ezkerrekin zerikusia zuen adar bat, nire aitona, nire osaba bat... Baina horrek baino gehiago irakurketak eraman ninduen nire ildo politikoetara, eta bestalde frankismoa ongi ezagutzeak ere eragin zidan beste era batera pentsatzea eta ekitea. Baina kontuan eduki behar da nire aita politikatik oso goiz bota zutela, 1945. urterako bai. Murtziako gobernadore zibila zela bota zuen Blas Perez de Gonzalezek, modu txarrean bota ere, arrazoi batzuk tarteko zirela. Eta ni oroitzen naiz nola ikusi nuen Murtziako jendea kalera irtena, nire aita ez zedin handik joan. Batzuek esaten dute oso gutxi direla orduan politikan aberats sartu eta pobre atera zirenak...

Zure aita bat?

Tira, nire aita ez zen pobre atera, baina ez zen politikatik zentimo batez ere aberastu.

Zu zure aitaren liburutegian aberastu omen zinen. Bai hala da, han denetik zegoen eta mundu berri bat deskubritu nuen. Liburutegi handia zuen eta nahi nuen guztietan uzten zidan sartzen. Gainera nire anaia zaharrak oso gaztetatik liburutegi propioa eduki zuen bere gelan eta egun batean gurasoen aurrean kexatu nintzen, esan nien ea nire anaia Juan Inaziok zergatik izan zezakeen bere liburutegia eta guk ez. Eta orduan gure gelan ere liburutegia jartzen hasi ziren.

Eta gezurra badirudi ere ikasle txarra zinen, eskola gorroto zuen horietakoa. Zergatik?

Otsailaren 23a

“Berlinalean nengoen. Hoteleko logelara deitu zuten, nire alaba zen, esanez ‘kongresua asaltatu berri dute’. Handik laster konexio guztiak moztuta gelditu ziren, eta denbora luze samar batean moztuta egon ziren. Festibaleko zuzendaria etorri zitzaidan eta zera esan zidan: ‘Bi berri eman behar dizkizut: *Deprisa deprisa*-rekin urrezko hartza irabazi duzu, eta bi, asilo politikoa izango duzu hemen zuretzat eta zuk esango dituzun espainiar guztientzat’. Baina aurrez erabakia nuen edozein modutara Espainiara itzuliko nintzela”.

Kolegioan errepresio modu bat instituzionalizatua zegoelako. Kolegio urteak nire bizitzako garairik grisena, edo beltzena, izan zirela esan nuen elkarrizketa batean. Hurrengo egunean kolegioko zuzendariak deitu zidan galdetuz ea nola ausartzen nintzen horrelako gauzak esatera...

Eta berriz ere esaten duzu?

Bai, berriz ere esaten dut. Baina hori diodanean Donostiako kolegioaz ari naiz. Hernaniko kolegioa ez, hura zoragarria izan zen, eta oraindik ere baditut Hernanin bizitza osoko lagunak.

Itzuli ohi zara tarteka?

Orain dela zenbait urte itzuli nintzen, nire anaia nagusiak eraman ninduen, baina iritsi bezain laster begiak itxi behar izan nituen, “Elias, zer egiten duzu begiak tapatuta!” harritu zen anaia, “ez dut ikusi nahi, ez dut ikusi nahi” erantzun nion. Nik ezagutzen nituen lekuak, eta oraindik ere oroitzapenetan dauzkadanak, desagertuak zeuden, oso aldaketa handia izan zen niretzat.

Elias Querejeta zinema produktorea ezagutzen dute denek. Baina Elias Querejeta izeneko bat ere ageri da orduko Realeko hamaikakoetan. Zu zeu. Bai, hala da. Profesionala izan nintzen. Beti gus-tatu izan zait futbola eta badirudi ongi moldatzen nintzela. Txantxillan hasi nintzen, handik hondartzara, eta hondartzatik Realeko jubentilatara pasa ninduten. Eta oso gazterik debutatu nuen, igande batean jubentilekin partidu bat jokatzera joan nintzen, eta hurrengo astean

Real Madrilen aurka jokatu nuen. Lehenengo Mailan. Ez Real Madrilen aurka ez, lehen partidua Sporting de Gijonen aurka izan zen. Hemezortzi urte nituen. Baina laster utzi nuen. Entrenamenduak egunerokoak bihurtu ziren, goiz eta arratsalde jarri zizkiguten, eta niri hori oso aspergarria egiten zitzaidan. Jokatzeari gustatu zitzaidan, eta oraindik ere gustatzen zait, kale kantoi batean baloi bat aurkitzen badut jolasten hasiko naiz, baina profesionala izatea azkenerako oso aspergarri bihurtu zitzaidan. Horregatik utzi nuen hain goiz.

Gero Rene Clerc, Jean Renoir, eta horien hamaikakora pasa zinen. Gipuzkoako lehen zineklubeko sortzaileetakoak izan zinen. Orduko garai politiko itxian zine kluba irla libre bat zen?

Bai nolabait, Cine Club San Sebastianen elkaritzen ginen aste oro, eta zinemaz eztabaidatzen genuen. Kalean, tabernan edo edonon hitz



Elias Querejeta -

egitea oso zaila zen gauzez hitz egiten zen zineklubean. Han beti aurkitzen zen nukleo bat horretarako.

Nola moldatzen ziren zinema eta diktadura?

Gaizki, oso gaizki. Zentsura gogor hartan ezinezkoa zen biak ongi moldatzea. Batzuek onartzen zuten zentsura eta onartzen zuten diktadura, baina zinema bera esentziaz diktaduraren kontra doa.

Zentsura inteligentea zen?

Baita zera ere! Ni zentsura engainatzera dedikatu nintzen. Nire lanetako bat horixe izaten zen, zentsoreak nola engainatuko.

Erraza zen?

Ez, ez zen, baina tira, kasu batzuetan engainatu nituen.

Bi zentsura pasatzen ziren,

lehenik gidoiarena, eta gero filmarena berarena. Gidoia bidali aurretik berrikusten nuen, hitzak aldatzen nituen arazorik egon ez zedin, eta gero errodutzen zena benetako gidoian oinarritutako

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ - Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

"Ardibidez" mahai-jolasa

"888 txiste" liburua

"Mokogorri" puzzleak

%25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian





filma zen, hitz aldaketarik gabea, askoz zailagoa zelako bukatutako filma zentsuratzea gidoia paperaren gainean zentsuratzea baino. Horrela-ko trikimailuak erabiltzen nituen.

Fragak ongi ulertzen zuen zure errealismo kritikoa?

Kar, kar, kar. Ez dut sekula ezagutu Fraga jauna eta ez dut inoiz ezagutu nahi izan.

Inoiz ez duzu aukerarik eduki?

Bai, Galizian behin esan zidaten, nik produzitutako film bat estreinatzeraz zihorean, joan nendila, Fraga ere bazihoala eta, gizonak ni ezagutu nahi ninduela, baina nik ezetz esan nien, nik ez nuela bera ezagutu nahi.

Eta Sánchez Bella informazio eta turismo ministroarekin nola moldatzen zinen?

Eskaintza bat egin zidaten, ez berak zuzenean, baina beste baten bidez heldu zitzaidan mezua; nire proiektuak ofizialki aurkeztu baino lehen komisio batekin eztabaida nitzala, hartara ez zela arazorik egongo. Hiru aldiz proposatu zidaten, eta lagun batek animatu ere egin ninduen: "Elias, onartu ezazu, engainatu egingo dituzu eta!". Baina ez nuen onartu eta ia hiru urtean izan nuen Informazio eta Turismoaren Ministerioa zapaltzea debekatuta.

Inoiz ez zenuen amesgaiztorik izan kartzelan esnatzearekin?

Ez. Amesgaiztorik ez, baina beldurra bai. Eta normala, egun batean etxera iritsi eta politiko sozialak etxe barruan aurkitzea ez da goxoa! Eskerrak neskamea eta alaba txikia etxean ziren, etxean nituen debekatutako liburu gehienak poltsa batean hartu zituzten, eta politiko soziala liburutegia aztertzen ari zen bitartean, zati bat ezkutu-ateratzea lortu zuten.

Bi proiektu

"Gure herriaren inguruko zerbaiten bila ari naiz. Euskal Herria jorratuko duen zerbaiten bila. Eta beste ideia bat ere badarabilkit Espainiako Gerra Zibilaren inguruan. Baina ez zait gustatzen proiektuez hitz egitea".

AZKEN HITZA

Esperientzia

"Batzuk urte gutxiarekin idiota huts bihurtzen dira eta beste batzuek urteen poderioz jakintza eta eskola hartzen dute. Baina esperientziari buruz bada esaldi bat Oteizarengandik ikasi nuena; filmaren batean errepikatzen dut gainera: 'Esperientzia ipurditik zintzilik doan farola da, eta pasatua dagoen hori argitzeko bakarrik balio du'".

Diozu, inoiz ez duzula alderdi politiko batean militatu...

Ez, sekula ere ez. Alderdi barruko diziplinak ez nau inoiz gehiegi erakarri. Kolaboratu izan dut zenbait arlotan, baina alderdi batekoa ez naiz sekula izan.

Ez dizute inoiz proposatu?

Bai. Alderdi Komunistatik behin baino gehiagotan proposatu zidaten. Eta kurioz da, nik Realeko jokalarien diruarekin nire produkzio-etxea muntatu nuenean Elias Querejeta Producciones Cinematográficas jarri nion izena, baina karteletan Elias Querejeta PC jartzen zuen, eta estreinaldi batean, zenbait lagun etorri zitzaizkidan izututa, "Elias, Elias, erotuta al zaude? Kendu ezazu PC hori bestela politiko soziala etorriko da eta!".

Zinemak konprometitua izan behar du?

Bai, nik uste dut baietz. Filmak filmaren beraren konpromisoa eduki behar du. Eta errealitate politiko sozialarekikoa ere bai.

Baina ez al dago zinema multinazionalen eskuetan?

Multinazionalen presentzia handiegia dago, eta multinazionalen aldetik determinazio handiegia. Horretan ez dago zalantzarik, hobe litzateke independentzia gehiago balego, anplitude gehiago eta botere banaketa handiagoa.

Zinema, zer da gehiago, adierazpen bide bat ala negoziotarako bulego bat?

Ez dago dudarik negozio bulego bat ere badela, baina nik uste dut batez ere adierazpen bide bat dela.

Zure film askok arrakasta izan dute, badituzu Urrezko Hartzak, Goya sariak, Oscarretarako izendapenak, ikusle kopuru handiak bilduak...

Film bat bukatzen duzuenean, gai zara esateko: honek arrakasta izango du, honek pixka bat gutxiago...?

Ez dut uste gauzak arrakastari begira egin behar direnik, lanak berak duen exijentziarekin egin behar da lana. Eta gero ikusiko dugu arrakasta duen edo ez duen. Baina galderari erantzunez, ez dakit aurreikusgarria den edo ez, niri harridura handiak sortu izan dizkit. Baina ez niri bakarrik, gogoratzen naiz *El espíritu de la Colmena* egin zenean “zu burutik jota zaude” esan zidatela, beste batek Donostian ikusi eta besarkada bat eman zidan, eta “Elias, itzuli hona, zure gurasoak aberatsak dira, esku zabalik hartuko zaituzte, utzi ezazu hori eta etorri hona” erregutu zidan. Inork ikusiko ez zuen film bat omen zen, eta azkenean mundu guztian ikusi dute. Ikusi eta ikusiko. *Las palabras de Max* filmak ere, adibidez, Berlinen Urrezko Hartza irabazi zuen. Eta filma atera nuenean zeharo erotuta nengoela esan zidaten.

Lore bat ere izan daiteke.

Bai, kasu batzuetan losintxa bat da, segun eta zeinek esaten dizun.

Zinemaldietako epaimahaiak ulertzen du zinemaz? Batzuek bai eta beste batzuek ez. Ez dut inoiz nik epaimahai izan nahi izan, behin proposatu zidaten Canneseko festibaleko epaile izatea, eta ezetz esan nuen, ez zuten sinesten, baina azaldu nien ezetz, ez nuela nahi. Ni ez naiz inor bat bestea baino hobea ote den esateko.

Eta hor daudenak badira?

Beraiek hori uste dute, eta existitzen direnez, bada beraien begiradapetik pasa behar da, ez dago beste erremediorik. Batzuetan epaimahaiko kideren batekin aurkitzen zara eta zeure kasa pentsatzen duzu, “eta honek zer jakingo ote du arlo honi buruz?”. Baina tira, hori gai askotan gertatzen da.

Ikuslea errespetatzen duen produktore bat omen zara, ikuslea ergeltzat hartzen ez duena. Noski baietz, nik ikuslea ni bezalako pertsona kontsideratzen dut.

Eta ikusle bezala askotan sentitu izan zara ergel? Bai, batzuetan bai, baina orduan utzi egiten dut, altxa eta martxa. Ikuslea ezin da norbait pasiboa izan, berak ere parte hartu behar du filmean. Ni, film batek eragin didanean, eta pentsarazi didanean gelditzen naiz gustura.

Zein aurpegi gustatuko litzaizuke atzematea ikuslearengan zure film bat ikustetik ateratzean?

Kar, kar, kar. Ez dakit, ez zitzaidan inoiz otu hori pentsatzea, kar, kar, kar. Zorion aurpegia. Eta arrazoi bategatik, zorionak aurpegi asko dituelako.

68ko maiatza

“Cannesen tokatu nintzen. Parisen manifestaldiak hasi ziren, eta horrek Cannesen ere bere oihartzuna izan zuen. Besteak beste *La nouvelle vague* izeneko mugimendua-ren parte ziren zuzendari batzuk azaldu ziren, eta bilerak izan genituen. Festibal bezala mugimendu sozial eta politikoa haren posizioa hartu genuen, eta erabaki genuen festibala itxi egingo zela. Gure aldetik ere *Pippermint Frappé* erretiratu egiten zela erabaki genuen. Biharamunerako programatua zegoen, eta badaezpada zinemara joan ginen, betea zegoen, eta kolpez, gortinak zabaldu ziren, pantaila azaldu zen, eta *Pippermint* proiektioa hasi. Orduan Carlos Saurak eta nik oholtzara salto egin genuen, Geraldinek eta Godartek ere bai. Godart, Carlos eta besteren bat gortintara zintzilikatu ziren, eta Geraldinek eta nik mikroa hartu genuen, nik frantsez esan nuen filmaren produktore bezala filmaren proiektioa debekatzen nuela, eta bukatu zela hura. Gero kazetari batzuk azaldu ziren, eta bat batez ere, oihukatuz ‘oraingoan, oraingoan bai, Querejeta eta Saura garbitu egingo ditut!’”.

Torturatua borrero, eta zentsuratua zentsore. Produktorea ere askotan kontsideratzen da sortzailearen etsai bezala, sormen askatasunari mugak jarriko dizkion pertsona bezala. Zu nola-ko produktorea zara?

Ni sortzailearen laguna naiz. Ez dut inoiz zentsore lana egin, baina eztabaidatu bai, beti eztabaidatzen dut, eztabaida oso ariketa sanoa baita, bai buruko eta bai gorputzeko osasunarentzat.

Adibidez Montxo Armendarizekin egin izan duzu lan. Nola ezagutu zenuen?

Donostiako lagun batek aipatu zidan bazela pertsona bat ni ezagutu nahi ninduen. Ezagutu nuen, ikusi nuen bere *Ikazkinak* lana, eta berekin hitz egin nuen, ea proiekturen bat bazuen, hala *Tasio* lanaren lehen hazia pasa zidan, hizketan hasi ginen, ezagutu ginen, eta lan egin genuen.

Tasio zinema euskaldunaren film sonatuenetarik bat, omen. Baina zinema euskalduna existitzen da?

Orain dela urte batzuk eztabaida luzea izan nuen horri buruz beste batekin, ez baitakit oso ongi zer esan nahi duen zinema euskaldunak, zinema espainiarrak, edo zinema frantziarrak. *Tasio* euskal zinemaren pelikula bat da? Bada gazteleraz hitz egiten dute. Hori bai, Euskal Herrian gertatzen da, beti ere kontsideratuz Nafarroa Euskal Herria dela.

Fernando León de Aranoaren produktorea ere bazara, errealismo kritiko sozialaren bidetik. Azken urteetako deskubrimendurik onenetakoa da?

Nik ez dut inoiz inor deskubritu. Ongi iruditzen zait bere lana, baina ez da nire inongo deskubrimendua. Bakoitzak bere burua deskubritzen du horretarako gai baldin bada.

Bada Paul Klee-ren esaldi bat errealismo kritiko sozialari buruz gogoeta egiteko balio duena: arteak ez du errealitate hautemangarria birsortzen, ikusteko bide bat ematen du.

Segun. Ikusezina iristen ere saiatu daiteke, eta ikusezinari bizitza ematen. Baita bizitzeko ezinezkoa den hari ere.

Lehen ikusezina zena ikusgarri egiteko politikak ere balio du. Zer iruditzen zaizu Gobernuaren eta ETAre artean elkarrizketa zabalitzea?

Ongi iruditzen zait, ni berez elkarrizketaren maitalea naiz, baina inork ez du uste izan behar bestea hiltzea zilegi egiten duen egia absolutu baten jabe dela.

Ikusi zenuen *La Pelota Vasca*?

Ez, ez nuen ikusi, eta ez dut ikusi nahi. Izan daiteke oso arrazoi pertsonal eta sekretuengatik. n